



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 48. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Iraila



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoa indartzea

Irailaren 29an, gobernantza ekonomikoa indartzeari zuzendutako ekimen legegile sorta bat onartu zuen Europako Batzordeak; halaber, zerga-politikak, makroekonomikoak eta egiturazko erreformak sakonago ikuskatzea jasotzen da.

Bost araudi eta zuzentarau bat jasotzen ditu, Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna eta desoreka makroekonomikoak prebenitu eta zuzentzeari, eta nazio mailako gobernantza fiskalaren elementuei buruzkoak.

Aurrekontuak ikuskatzeari dagokionez, euroaren herrialdeentzat BPGaren % 0,2aren baliokidea den gordailu bat aurreikusten da, interesen sortzapekin gabe, herrialde batek gehiegizko defizita duenean, eta hori zuzentzeko emandako gomendioak betetzen ez badira, isun bilakatuko da.

Halaber, Estatu batek bere desoreka makroekonomikoak zuzentzeko gomendioak betetzen ez baditu, BPGaren % 0,1eko isuna jasoko du.

*Informazio gehiago.*

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/1199&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/articles/eu\\_economic\\_situation/2010-09-eu\\_economic\\_governance\\_proposals\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/articles/eu_economic_situation/2010-09-eu_economic_governance_proposals_en.htm)



### > Eskualdeen lehiakortasuna: Euskadi Europako 268 eskualdeetatik 112. lekuan dago

Europako Batzordearen txostenak (JRC) teknologiaren berrikuntza eta gaitasunei, garraio eta komunikazio azpiegiturei, osasunari, hezkuntzari eta erakundeen kalitateari lotutako adierazleen multzoaren arabera kalkulatu du eskualdeen lehiakortasunaren indizea. Eta hiru oinarritan egituratzen da: oinarritzkoak, eraginkortasunezkoak eta berrikuntzakoak (2007tik 2009rako datuak).

Herralde batzuen lehiakortasunaren artean desberdintasun nabarmenak adierazten ditu indizeak. Esaterako, Belgikak, Espainiak, Portugalek, Italiak eta Greziak eskualde-desberdintasun handiak dituzte eskualdeen lehiakortasunari dagokionean. Lehiakortasunak eskualde-dimentsio handia duela azpimarratzen dute emaitza horiek.

Honako hauek dira lehiakortasun indize onenak dituzten bost eskualdeak: Utrecht, Hovedstaden (Kopenhage), Noord-Holland, Londres, Stockholm eta Etelä-Suomi (Helsinki).

Euskadi aztertutako 268 eskualdeen artean 112. lekuan kokatzen da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/dgs/jrc/index.cfm?id=1410&obj\\_id=11500&dt\\_code=NWS&lang=en](http://ec.europa.eu/dgs/jrc/index.cfm?id=1410&obj_id=11500&dt_code=NWS&lang=en)

### > Genero berdintasunaren estrategia berria

Europar gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko 2010-2015 estrategia europarra bost ardatzetan egituratzen da: ekonomia eta enplegua, soldata berdina, ardura postuetan berdintasuna, genero indarkeriaren aurkako borroka, eta EBtik kanpora berdintasuna bultzatzea.

Eta helburuen artean, honako hauek aipatzen ditu: gero eta emakume gehiagok enplegua eskuratzea, modu horretan, 2020 urtean emakumeen eta gizonen enplegu-tasa % 75era iritsi dadin lagunduz; erabaki ekonomikoak hartzeko orduan emakumeen presentzia handiagoa lortzera bideratutako ekimenen proposamena; emakumearen enpresa-ekimenaren eta autoenpleguaren sustapena; eta emakumearen aurkako indarkeriaren aurkako borroka, bereziki Europan eta kanpoan emakumeen genitalen mutilazioa desagertzea.

Era berean, urtero txosten europar bat lantzea proposatzen du, emakumeek gizonen baino % 18 gutxiago kobratzen dutenaren inguruan sentsibilizatzeko.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=89&newsId=890&furtherNews=yes>



### KOHESIO-POLITIKA

> Kohesio-politika, 2013az haratago

2013 urtetik aurrera kohesio-politikaren etorkizunari buruzko Eskualdeetako Lantaldearen Irizpenaren aburuz, Europako integrazio ereduaren elementu nagusia Europar Batasunak garapen orekatua izatearen helburua da, hain zuzen ere, eskualde desberdinen garapen mailen eta behar handiena duten eskualdeen atzerapen mailen desberdintasunak murriztearen bidez.

Eta halaber, ikuspegi deszentralizatu duenez eta maila anitzeko gobernantza-sistema duenez, kohesio-politika da Europa 2020 Estrategiaren helburuak tokiko eta eskualdeko erakundeek aurrean dituzten erronka berriekin uztartzea ahalbidetzen duen Europar Batasuneko politika bakarra. Horregatik, beharrezkoa da kohesio-politika hazkunde jasangarri, gizarteratze, enplegu eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren helburuetara bideratzen jarraitzea.

Herraldeen arteko lankidetzeta eta neurri berritzaileak sustatzeko helburuak mantentzeko beharra azpimarratzen du, eta zazpi urteko programazio epea laburtzeko ideia bazterten du. Horrela, likidazio eta kontrolerako prozedurak sinplifikatzea bultzatzen du, proportzionaltasunaren printzipioari helduz.

Eta halaber, tokiko eta eskualdeko erakundeek programazio, aplikazio eta ebaluazio fase guztietan betetzen duten zeregina indartzea proposatzen du, kohesio-politikaren ebaluazioan garrantzi handiagoa izanez.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:232:0014:0022:ES:PDF>



### > Berrikuntza, eskualdeetako garapen ekonomikoaren ardatza

Europako Batzordeak berriki argitaratu duen "The regional impact of technological change in 2020" azterlanak jasotzen duenez, Europako eskualde guztiek berrikuntzan jarri behar dituzte indarrak, eta ildo horretatik, tokiko berezitasunak kontuan hartzen dituzten «espezializazio adimendun» estrategiak dira arrakasta izateko aukera handien dutenak.

Berrikuntzaren inguruan eskualdeen ibilbidea oso desberdina da, eta alderdi asko barne hartzen dira. Hala ere, hiru funtsezko faktore daude: ezagutzara heltzea, ezagutza nork bereganatzeko gaitasuna eta ezagutza eta teknologia hedatzeko gaitasuna.

Ezagutzara heltzea ondorengoek zehazten dute: tokiko azpiegiturak, konektibitatea, merkatuak hurbil egotea, ikerketa institutuak, I+G jarduerak eta berrikuntza eta sareak. Kualifikazioa nork bereganatzeko gaitasuna hezkuntza mailak, ekipamenduek, sare profesionalek eta ezagutzan zerbitzu intentsiboak izateak zehazten dute. Eta hedatzeko gaitasuna mugikortasunari, dentsitateari, goi-teknologiako enbriagarri, nazioarteko merkataritzari eta atzerriko inbertsioei lotuta dago.

Azterlanak zazpi taldetan sailkatzen ditu Europako eskualdeak eta berrikuntzari lotutako faktore aniztasunaren garrantzi erlatiboa aztertzen du, enpresen I+G-an egiten duten inbertsioetik hasi eta prestakuntza eta hezkuntzaraino.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/2010\\_technological\\_change.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/2010_technological_change.pdf)

### > SUDOE programa: 28 proiektu bigarren faserako

Europa Hego Mendebaldeko Lurraldeen arteko Lankidetzaren Programaren (SUDOE) Programazio Batzordea irailaren 20an bildu zen eta bigarren deialdiaren harira jasotako 223 hautagaitzak aztertu zituen. Horietatik 121 hautagarritzat jo zituen. Horien artean, 28 hautagaitza bigarren fasera pasatzeko hautatu zituzte; 16 hautagaitza 1. lehentasunari dagozkio (Berrikuntza) eta 12, berriz, 2. lehentasunari (Ingurumena).

Bigarren deialdirako FEDER laguntzaren zenbateko erabilgarria 25,4 milioi euro da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP>



### > Panorama: pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka

Eskualde Politikari buruzko aldizkari europarraren udazkeneko aleak kohesio-politikaren proiektuak eta horiek pobrezia eta gizarte-bazterketaren borrokan egiten duten ekarpena aurkezten ditu, pobrezia buruzko urte europarra dela kontuan hartuta.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panora\\_en.htm](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panora_en.htm)





### KOMUNITATEKO POLITIKAK

#### > Gazteria mugimenduan, ekimen adierazgarria

Enplegua lortzeko gazteek beharrezko ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eskura ditzaten laguntzera bideratutako ekimena aurkeztu du Europako Batzordeak. Ekimen adierazgarri hau Europa 2020 Estrategiaren baitan kokatzen da.

Eta gehienez 2020 urterako, ikasketak behar baino lehenago uzten dituzten pertsonen proportzioa % 15etik % 10era murrizteko eta hirugarren mailako hezkuntza edo hezkuntza baliokidea duten pertsonen proportzioa, gutxienez, % 31tik % 40ra igotzeko Estrategiaren helburuak lortzen laguntzen du. Batzordearen arabera, lanpostu berrien % 35ak goi-mailako kualifikazioak eskatuko dituzte beranduenez 2020an eta % 50ak maila ertaineko kualifikazioak eskatuko dituzte.

Gazteria Mugimenduan ekimenaren helburua gazteria prestatzeko orduan mugikortasun aukerak zabaltzea da, hainbat jarduketa sartuz. Besteak beste, honako hauek aipagarriak dira: atzerrian prestatzeko maileguak ikasleentzat, enpresari gazteei laguntza, gaitasunen pasaporte europarra, beste herrialde batean enplegua bilatzeko aholkularitza, enplegu-eskaintzen monitore europarra...

Halaber, ekimen honen baitako kontsulta publikoa abiatu du Batzordeak.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/education/yom/com\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/education/yom/com_es.pdf)

*Kontsulta publikoa:*

<http://ec.europa.eu/yourvoice/ipm/forms/dispatch>



### > Batzordearen lan-programa: ildo nagusiak

2011 urteko lan-programari begira, Europako Batzordea hausnartzen ari den elementu nagusien inguruko informazioa helarazi dio Barroso presidentek Europako Parlamentuari.

Honako hauek dira: Gobernantza ekonomikoa eta finantza-zerbitzuak arautzea (zerga-politika, politika makroekonomiko eta egiturazko erreformen zaintza hobetzea), Europa 2020aren garapena (Berrikuntzari, Industria Politikari, Gazteria Mugimenduan ekimenari, Kualifikazio eta Enplegu berriei eta Pobreziaren aurkako Europako Plataformari buruzko Batasunaren ekimenak), Europa modernizatzeko egokia den gizarte plataforma (lanorduen antolaketa, goi-mailako irakaskuntzaren modernizazioa eta hezkuntza-sistemen berdintasuna), Merkatu bakarraren potentziala askatzea (merkatu bakarraren akta), Bitartekoen inguruan eraginkorra den gizartean bilakatzea, Herritarren parte-hartzea, EB-ko segurtasuna areagotzea, Hainbat urtetarako finantza-esparru berria eta Kanpo-harremanen orientazio berria.

*Informazio gehiago:*

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=MEMO/10/393&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

### > 2012 : Zahartze aktiboaren urte europarra

2012 urtea "Zahartze Aktiboaren Urte Europarra" izendatzeko proposamena egin du Europako Batzordeak. Ekimenaren helburua Europan gero eta gehiago diren pertsona adinduen enplegurako aukerak eta lan-baldintza hobek sortzen laguntzea, gizartean paper aktiboa izan dezaten laguntzea eta zahartze osasuntsu bat sustatzea da.

Zahartze Aktiboaren Urte Europarra sentsibilizazio-esparru gisa jarduteko, jardunbide egokiak identifikatu eta hedatzeko, eta bereziki, ekimen eta neurri zehatzen bidez zahartze aktiboa sustatzeko politikak eta interesa eta konpromisoa sustatzeko diseinatu da.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0462:FIN:ES:PDF>





### e-LIBURUTEGIA

#### > Eurostaten 2010eko urtekari estatistikoa

Eurostaten 2010eko Europako urtekaria zenbakitan ikusiz gero, Europari buruzko datu estatistiko ugari jasotzen ditu eta 1998-2008 epeari buruzko 450 estatistika-taula, grafiko eta mapa barne hartzen ditu.

Honako gaiak aztertu dira: ekonomia, biztanleria, osasuna, hezkuntza, lan-merkatua, lan-baldintzak eta ongizatea, industria eta zerbitzuak, nekazaritza, basogintza eta arrantza, merkataritza, garraioa, ingurumena eta energia, zientzia eta teknologia, eta Europako eskualdeak. Edizio honek kontu nazionalen azterketari eta atzeraldi ekonomikoaren eraginari buruzko kapitulu berezi bat jasotzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product\\_details/publication?p\\_product\\_code=KS-CD-10-220](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-CD-10-220)

#### > Hezkuntza Europan

Eurostaten argitalpena, Europako herrialdeen, Estatu Batuen eta Japoniaren hezkuntzaren oinarriko adierazleak jasotzen dituena, erreferentzia gisa 2008 urtea hartuta.

Hezkuntza-mailen araberako ikasleak, prestakuntza-alorren araberako hirugarren mailako hezkuntza graduatuak eta generoaren araberako banaketa dira gai nagusiak.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-QA-10-037/EN/KS-QA-10-037-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-QA-10-037/EN/KS-QA-10-037-EN.PDF)



### ADIERAZLEAK

#### > Gipuzkoako eta Europar Batasuneko BPGa

Gipuzkoako BPGa % 0,1 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko hirugarren hiruhilekoari dagokionez. Hazkunde hau Europar Batasuna-27arena (% 1,0 aurreratu du) baino baxuagoa da.

Dinamismo handien duten herrialdeak Alemania (% 2,2), Finlandia (% 1,9) eta Suedia (% 1,9) dira. Bilakaera negatiboa izan zuten herrialde bakarrak Grezia (% -1,8) eta Irlanda (% -1,2) izan ziren.

Urtetik urterako aldaketa-tasari begiratuta, Gipuzkoan % 0,2 hazi zen; Batasun osoan, aldiz, % 2,0 igo zen. % 3tik gorako hazkundera izan zuten zazpi herrialde nabarmentzen dira: Luxenburgo, Eslovakia, Suedia, Danimarka, Polonia, Alemania eta Finlandia.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0003200/ti\\_Barne\\_Prodktu\\_Gordina\\_Jurralde\\_historikoaren\\_eta\\_hir\\_uhilekoaren\\_arabera\\_Bolumen-indize\\_kateatua\\_2010/tbl0003224\\_e.html](http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0003200/ti_Barne_Prodktu_Gordina_Jurralde_historikoaren_eta_hir_uhilekoaren_arabera_Bolumen-indize_kateatua_2010/tbl0003224_e.html)

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/2-06102010-AP/EN/2-06102010-AP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-06102010-AP/EN/2-06102010-AP-EN.PDF)

#### > Euskadiko Autonomia Erkidegoko errenta pertsonala eta familia-errenta

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin elkarlanean Eustatek landutako Errenta Pertsonalaren eta Familia-errentaren estatistikaren arabera, Donostiako batez besteko errenta pertsonal altuena Miramon-Zorroaga auzo donostiarra du, 27.238 euroekin (hiriaren batez bestekoaren % 136). Jarraian, Aiete (% 129) eta Antigua (% 127) auzoak daude.

Errenta pertsonal baxuena duten auzo donostiarra Altza (% 68), Martutene (% 75) eta Mirakruz-Bidebieta (% 76) dira.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0006200/not0006265\\_e.html](http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0006200/not0006265_e.html)